

BEROJAN PROIEKTUAREN DIRU ITURRIAK

Berojan proiektuaren diru-sarrerak bezeroek makinatan erosten dituzten janari beroen salmentatik datoz. Bezeroak prest daude produktu bakoitza erostean ordainketa bakarra egiteko, zerbitzu azkarra, 24 ordukoa eta kokapen eroso eskaintzen delako. Ordainketa bi modutan egin ahal izango da: txartel bidez eta efektiboan, bezero mota guztietara egokitzeko. Diru-sarrera nagusiak takoen, sandwich-en eta bokaten salmentatik lortuko dira, eta produktu bakoitzak prezio finkoa izango du, bezeroak aurrez jakin dezan zenbat ordainduko duen. Beraz, Berojanen diru-sarrera eredu batez ere ordainketa bakarreko diru-sarreretan oinarritzen da, produktuaren unitateko salmentaren bidez. Hasierako inbertsioa handia denez (makinak erostea eta instalatzea), diru-sarrerak pixkanaka handitzea aurreikusten da, makinak kokapen estrategikoetan jarritz eta salmenta-bolumena handituz, proiektuaren bideragarritasuna eta jasagarritasuna bermatzeko.